

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2024ko ekainaren 27a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Iburguren Azkue, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz eta Lourdes Salsamendi Goñi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Ainara Munduate Iguaran zinegotziak (EH Bildu) eta Jon Basurko Sarasua zinegotziak (EAJ) adierazi dute ezin zutela etorri eta, beraz, ez dute bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2024ko maiatzaren 30eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, 2023ko udal-aurrekontuaren Kontu Nagusia.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Txara eta Errezabal-Lertxundi bideak Orioko bide publikoen inbentarioan sartzeari.
- 4.- Onartzea, egoki bada, «EUSKARAZ HOBETO! Orioko Udalaren erabilera-plana 2024-2027»an aurreikusitako jarraipen-batzordea eratzea eta batzordeko kideak izendatzea.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2024KO MAIATZAREN 30EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2024ko maiatzaren 30eko ohiko bilkurako akta.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, 2023KO UDAL-AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2023ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2023ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertze eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharrak idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2024ko maiatzaren 31ko GAOn (105. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea, oharrak aurkezteko, 2024ko ekainaren 3an hasi zen eta ekainaren 21ean bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA 2023ko udal-aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak osatzen duena.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, TXARA ETA ERREZABAL-LERTXUNDI BIDEAK ORIOKO BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOAN SARTZEARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Tokiko Garapeneko batzordeak 2024ko ekainaren 7an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Txara eta Errezabal-Lertxundi bideak Orioko bide publikoen inbentarioan sartzeari.

2.- Hasitako espedientea **JENDAURREAN JARTZEA** 30 laneguneko epeaz, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, jendeak aukera izan dezan aztertzeko eta alegazioak eta erreklamazioak aurkezteko.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, «EUSKARAZ HOBETO! ORIOKO UDALAREN ERABILERA-PLANA 2024-2027»AN AURREIKUSITAKO JARRAIPEN-BATZORDEA ERATZEA ETA BATZORDEKO KIDEAK IZENDATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak 2024ko ekainaren 14an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ONARTZEA «EUSKARAZ HOBETO! Orioko Udalaren erabilera-plana 2024-2027»an aurreikusitako jarraipen-batzordea eratzea.

2.- ONARTZEA «EUSKARAZ HOBETO! Orioko Udalaren erabilera-plana 2024-2027»an aurreikusitako jarraipen-batzordeko kideak izendatzea. Hauek osatuko dute jarraipen-batzordea:

- Anuska Esnal Oriden, Orioko alkatea
- Iosu Lizarralde Ibarbia, Orioko Udaleko euskara-zinegotzia
- Adrian Garcia Melero, Orioko Udaleko langileen ordezkaria

- Goizane Arana, UEMako hizkuntza-teknikaria.
- Jabier Zabaleta Iraola, Orioko Udaleko euskara-teknikaria

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bihar bertan hasiko direla San Pedro festak eta bere talde politikoak oriotar guztiei opa diela festak errespetuz, duintasunez, segurtasunez eta eraso sexistarik gabe ospatzea

Ez zen bestelako eskari edo galderarik izan.

Horrenbestez, alkateak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,